



Kontabilitate-datuak inportatzea Sozietateak 2025

Ogasuna eta Finantzak Saila

Bizkaiko Foru Aldundia

17/06/2026



AURKIBIDE

1	SARRERA	3
2	BERTSIOEN KONTROLA.....	3
2.1	HASIERAKO BERTSIOA 1.0.....	3
3	FITXATEGIAREN FORMATUA.....	3
4	APLIKAZIOAREN OPERATIBOA.....	3
5	ERREGISTROEN DESKRIPZIOA.....	4

1 SARRERA

2024ko Sozietateen gaineko zergari dagokion autolikidazioa errazago betetzeko, web-aplikazioak aukera ematen du **kontabilitate-datuei buruzko informazioa inportatzeko kanpoko edozein aplikaziotatik sortutako fitxategi batetik**, baldin eta fitxategiaren edukia aurrerago xedatutakoaren araberakoa bada.

Horretarako, eta interesdunek beren aplikazio informatikoak egokitu ditzaten, apartatu honetan dago jasota **zer ezaugarri eta formatutan** egituratu behar den informazioa aplikaziora inportatzeko.

2 BERTSIOEN KONTROLA

2.1 HASIERAKO BERTSIOA 1.0

Dokumentua sortzea.

3 FITXATEGIAREN FORMATUA

Testu-fitxategia: **ASCII** edo **ANSI** (Web-aplikazioak lehenespenez **ANSI**n inportatuko du, eta erabiltzaileak **ASCII**n inportatzeko eska dezake).

4 APLIKAZIOAREN OPERATIBOA

Inportatzeko, aukera horretara joko da aplikazioan, eta fitxategia hautatuko da. Fitxategia aldezturik sortu behar izan da, ondoren zehaztutako jarraibideen arabera.

Fitxategiak **aplikazioaren eremuei dagozkien zenbatekoak** eduki behar ditu, eta, inportazioan, eremuetara aldatuko dira.

Kontabilitate-datuak inportatzeko, hau hartu behar da kontuan:

1. Inportatu behar diren kontabilitate-datuek izan behar dute aplikazioan ezarritako irizpideen arabera kalkulaturako eremuei ez dagozkienak soilik.
2. Erabilitako fitxategian agertzen diren zenbatekoak aplikazioko eremuetara inportatuko dira, eta fitxategian daukaten zeinu bera izango dute. Eremu horietan zeinu positiboa bakarrik onartzen bada eta fitxategian zeinu negatiboa badago, errorea emango du, eta zuzendu beharko da.
3. Datuak inportatzeko prozesuan, errorerik gertatzen bada, errore-pantaila agertuko da, eta inportazioa bertan behera geratu.

4. Inportazioa egin ondoren, aplikazioak kalkulu eta kontrol guztiak egingo ditu. Horren ondorioz, gerta daiteke inportatutako datuak zuzentzat ez jotzea; hala bada, erroreak sortuko dira eta aplikazioan bertan zuzendu beharko dira.
5. Aplikazioak azken inportazioaren oinarria den fitxategiaren bide-izena eta izen osoa gordeko ditu.

5 ERREGISTROEN DESKRIPZIOA

Erregistroak irizpide hauen arabera grabatuko dira:

- Eremu alfabetikoak ezkerrean lerrokatuta aurkeztu behar dira, eta eskuinetik zuriunez beteta, zenbakirik edo karaktere berezirik gabe.
- Eremu alfanumerikoak ezkerrean lerrokatuta aurkeztu behar dira, eta eskuinetik zuriunez beteta.
- Karaktere alfabetikoak letra LARRIZ formateatu behar dira.
- N motako zenbakizko eremuak eskuinean lerrokatuta aurkeztu behar dira, eta ezkerretik zeroz beteta, eremuko lehen digitua izan ezik, zeinak "+" zeinua izango baitu positiboetarako, eta "-" zeinua negatiboetarako.
- Num motako zenbakizko eremuak eskuinean lerrokatuta aurkeztu behar dira, eta ezkerretik zeroz beteta.
- Zenbateko guztiak EUROTAN adierazi behar dira; zenbatekoen eremuak zentimotan grabatuta egongo dira, hau da, koma hamartarrik gabe eta euro-ehunenei dagozkien azken bi digituekin.
- Eremu guztiek edukia izan behar dute, kontrakorik zehazten ez bada eremuaren deskripzioan. Edukirik izan ezean, zenbakizko eremuak zeroz bete behar dira, eta alfanumerikoak zuriunez.